

2020.urteko diru-laguntzen deialdia

**Eremua: GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA GIZA-
ESKUBIDEAK**

**Diru-laguntzen lerroa: 1- GARAPENERAKO NAZIOARTEKO
LANKIDETZA, URTEBETEKO PROGRAMAK: HELBURU
NAGUSIA GASTU ARRUNTA DUTENAK**

1. artikulua. Esparrua eta xedea

Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Sailak, garapenerako lankidetzaren eta giza eskubideen eremuaren barruan, "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzeta Urtebeteko programak: helburu nagusia gastu arrunta dutenak" izeneko diru-laguntzak emango ditu. Diru-laguntza horiek 2021eko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar duten garapenerako lankidetzarako proiektuak eta programak finantzatzeko emango dira. Programa horiek irabazi asmorik gabeko elkarteek gauzatuko dituzte. Gastu arruntaren proiektutzat jotzen dira entitateak edota prozesuak indartzea, prestakuntza zein trebakuntza xede dutenak.

Gehienezko diru-kopurua, programako: 70.000 €

2. artikulua. Aplikatzekoa den araudia

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1 Diru-laguntza jasoko dute baldintza hauek betetzen dituzten erakundeak:

- a) Egoitza nagusia edo ordezkaritza finkoa edukitzea Bilbon (dokumentu-bidez egiaztatuta) diru-laguntzaren eskaria egin baino urte bi lehenagotik gutxienez. Era berean, jendeari arreta emateko zerbitzuaren (baldin badu) ordutegia zehaztuko da, eta egoitza etxebizitza partikularrekin batera dagoen adieraziko da.
- b) Euren helburuetan garapenerako nazioarteko lankidetzeta agertzea, 1. eta 2. ildoetako diru-laguntzak eskatzeko.
- c) Deialdi honetako jardueretako ekintzak sustatzea Bilbon.

Udalerrian presentzia aktiboa dagoela irizten da erakundearen esparrutik kanpoko jarduera ireki eta publiko hauetako batzuk eginak izango dituzte azken bi urteotan:

- Sentsibilizazio eta elkartasunaren arloko kanpainak.
- Prestakuntzako edo/eta sentsibilizazioko jarduerak ikastetxeetan, gizarte erakundeetan, auzo-elkarteetan, eta abarretan.

- Deialdi honekin lotutako erakusketak.
 - Arlo honekin lotutako ikerketa-jarduerak edo/eta testuak, gida didaktikoak, artikuluak, erreportajeak eta azterlanak argitaratzea.
 - Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kide, Berdintasunerako Bilboko Emakumeen Kontseiluko kide edo/eta Bilboko Udalaren Immigrazio Gaietarako Kontseiluko kide izatea eta bere jardueretan parte hartzea.
- d) Erakundeen partzuergoek (edo nortasun juridikorik ez daukaten taldeek) ere diru-laguntzak eska ditzakete. Taldearen ordezkari modura erakunde bat izendatu beharko dute, taldeari, onuradun modura, dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin. Erakunde ordezkari horrek aurreko paragrafoetan jasotako baldintzak bete beharko ditu eta partzuergoaren edo taldearen ordezkari izango du zabaltzen den administrazio espedientean. Partzuergoa edo taldea ez deuseztatzeko konpromisoa egin beharko dute diru-laguntzaren ondorioetarako, ez bada preskripzioaren epea amaitu. Eskabidean jasoko dira kide den erakunde bakoitzak onartutako betearazpen konpromisoak.

Partzuergoko kide guztiek 3.3 artikuluko baldintzak bete beharko dituzte.

- e) Diru-laguntza eskatzen duen erakundea izango da hura betetzearen eta Bilboko Udalaren aurrean behar bezala justifikatzearen arduraduna, lekuko kideek edo atzerriko alderdiek gauzatu arren osorik edo zati batean.
- f) Eskabidea egin duen elkarteak 2018ko edo aurreko deialdietan jasotako diru-laguntzak justifikatuta eduki behar ditu deialdi hau ebatzen den unean. Urte biko diru-laguntzak badira, udalaren 2018.ko edo aurreko urteetako aurrekontuetakoak egongo dira justifikatuta. Eskudun organoak gaitzetsiko ditu baldintza hau betetzen ez duten eskabideak.
- g) Eskabidea egin duen elkarteak eskaerak egiteko epe barruan aurkeztu beharko ditu agiriak. Behin epea amaituta aurkeztutako agiriak, ez dira kontuan hartuko proiektua baloratzeko. Hori Bilboko Udalak beren beregi eskatutako agiriak izan ezik.

3.2. Erakunde eskatzaileek, eskariak aurkezteko epea amaitzen denean, Bilboko Herritarren Partaidetzako Erakunde Udal Erregistroan erregistratuta egon behar dute eta erregistroko datuak eguneratuta eduki behar dituzte (Erregistroa Herritarrentzako Arreta, Partaidetza eta Barrutien Sailean dago: Venezuela plaza 2, 4. solairua). (2020ko otsailaren 17a)

3.3. Erakunde eskatzaileak egunean eduki behar dituzte betekizun fiskalak, Gizarte Segurantzakoak eta Bilboko Udalarekin dituzten zerga-betekizunak; hori, eskaria aurkeztu dutenean eta prozesuak irauten duen bitartean (diru-laguntza esleitzea, betekizuna onartzea eta ordainketa egitea).

4. artikulua. Aurrekontu-kredituak

4.1. Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-kodearen PEP: 2020/00182 eta ekitaldirako 2020 onartutako 2020 32000 4 00182 00 2020 gastu-proiektuaren kontura finantzatzeko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa **632.172 €** da.

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

5.1. Diruz laguntzeko kontzeptuari **aplikatzeko erregimena norgehiagoka izan daiteke:**

- Norgehiagokan, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

5.2. 1.arloan onartutako diru-laguntzen zenbateko osoa benetan erabiltzen den kopurua baino txikiagoa bada, geratzen dena 2.arloko zenbatekoari gehituko zaio.

5.3. Behin gutxieneko atalera helduta (60 puntu), emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberrako portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

Programari emandako puntuak	Emateko diru-laguntzaren %
70 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
60-70 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80

6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak

6.1 Diru-Laguntza jasoko dute baldintza hauek betetzen dituzten programak:

- a) Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzako Gidaplanean lehentasunezko hartutako herrialdeetan edo guneetan egitea. Saharaz azpiko Afrikak lehentasuna dauka, helburu bikoitza lortu nahi delako: batetik, kontinente horretan lankidetzaren sustatzea eta, bestetik, proiektuak baloratzeko orduan kontuan hartu ohi diren irizpideetako batzuk betetzeko zailtasuna konpentsatzea. Horregatik, Saharaz azpiko Afrikan gauzatzekoak diren proiektuek, lankidetzarako sekzio guztietan, baremazio handiagoa izango dute, hau da, baremazio-taularen arabera lortzen den puntuazioa bider 1,05 egingo da.
- b) Funtsezko eta oinarritzko gizarte-premiak hobetzeko eragin praktikoa eta zuzena duten ekintza zehatzetan oinarrituta egotea.
- c) Proposatutako ekintzaren jasotzaileen artean ez dadila egon diskriminaziorik arraza, erlijio, sexu, joera sexual edota adinagatik, eta emakumeen rol hirukoitza aitortu dadila (etxeko kontuen kudeaketa, ekoizpenekoa eta erkidegokoa). Generoko behar estrategikoak asebeste ditzala eta emakumeak gizartean eta politikan duten lekua hobetzeko izan dadila.

- d) Gizarte zibilaren laguntza eta partaidetzazko garapena, giza eskubideak eta demokrazia bultzatzeko izan daitezela.
- e) Bideragarriak izan daitezela Udalaren finantzazioa amaitutakoan.
- f) Lekuko bazkide baten edo atzerriko alderdi baten bidez egitea, biztanleria onuradunaren partaidetzaz. Lekuko bazkidea irabazi-asmorik gabeko erakundea edo erakunde publikoa izango da, nortasun juridikoa duena eratu eta dagokion erregistroan formalki inskribatua. Lankidetzazko eratzeko dokumentua (lankidetzazko fitxa) erantsiko da eta, bertan, erakunde eskatzailearen eta tokiko alderdiaren konpromiso eta ardurak jasota etorriko dira. Lekuko bazkideek edo atzerriko alderdiek gauzatzen badute diru-laguntza, osorik edo zati batean, ez da azpikontrataziorik joko 38/2003 Legearen 29. artikulua ondo onartariko.
- g) Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian edo transferentziako diru-sarrera egiten denetik hurrengo 2 hilabeteetan hasia.
- h) Proiektuak 2021eko abenduaren 31 baino lehenago amaitzea.
Justifikatuta badago, epe hori luza daiteke, baina horretarako Bilboko Udalak beren beregi eta alde aurretik eman beharko du baimena.
- i) Proiekturako komunikaziorako erabiltzen den edozein materialek Bilboko Udalaren logotipoa edukitzea, Lankidetzazko eta Herritarren Gaietarako Sailak horretarako emandako jarraibideekin bat etorri. Erakunde onuradunak material hori gainbegiratzea erraztuko dio Bilboko Udalari. Baldintza hau ez betetzeak emandako diru-laguntza udalari itzultzeko prozedura hasia ekar dezake.
- j) Deialdi honen bidez Bilboko Udalak guztira egin beharreko finantzazioa kostu osoaren zenbatekoaren % 100 izan daiteke.
- k) Genero-ikuspegiaren integrazioa, hau da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin lotutako ebazpenak betetzea; emakume eta gizonezkoen egoera, baldintza, jomuga eta beharriak era berdinean hartzea, eta politika eta ekintza guztietan, beraien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea.
- l) Lekuko bazkide edo atzerriko alderdiak ez edukitzea diru-laguntza izendunerako hitzarmenik Udalaren garapenerako lankidetzaren aurrekontuan.
- m) Bilboko Udalarekin, Lankidetzarako Udal Kontseiluarekin edo beste erakunderen batekin lankidetzazko jardutea herritarrei proiektuaren garapenera buruzko informazioa ematean. Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntzaren arloan antola daitezkeen jardueretan ere parte hartu behar dute.

6.2 Garapenerako nazioarteko lankidetzazko programetako diruz lagundu daitezkeen gastuak

- a) Diruz laguntzeko gastuak joko dira diruz lagunduriko jardueraren izaerarekin zabalduz gabe bat egiten duten dagokion deialdia arautzen duten oinarriek ezarritako epe barruan egiten diren gastu guztiak. Inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak eskuratzeko kostua ezingo da merkaturako balioaren goragokoa izan.
- b) Diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriek aurkakoa adierazten ez badu, egindako gastuak joko dira hura justifikatzeko ezarritako epea amaitu baino lehen eraginkortasunez ordaindu dena.

c) Diru-laguntzak ezingo du zuzeneko eta zeharkako gastuak barne hartu. Zeharkako kostuen muga: Proiektuaren guztiaren gastu zuzenen % 7. Zeharkako gastutzat jotzen dira erakunde eskatzailearen ordezkariaren edo Bilboko egoitzaren funtzionamenduaren berezkoa eta esku-hartzea gauzatzeko oinarri gisa erabiltzen diren gastuak, edo dagokionean, lankidetzaz hitzarmenean zehazten diren gastuak.

d) Zuzeneko gastutzat joko dira esku-hartzea gauzatzeari lotutako gastu guztiak. Hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

d.a) Lurraldeko esku-hartzea identifikatetik eratorritakoak, baldin eta diru laguntzen dagokion deialdia amaitu baino aurreko bost hilabetetan egin bada eta deialdiaren aurrekontu urte berebean;

d.b) Kanpo ebaluazioak eta kontu-ikuskapenak, baldin eta Administrazioak eskatu baditu, edo diru-laguntza eskatu duenak eginiko proposamen honen bidez onartu badira;

d.c) Lurraldeak eta higiezinak, erositakoak zein alokatutakoak;

d.d) Higiezin edota azpiegituren eraikuntza edota erreforma (esku lana, obra zuzendaritza, lizentziak, eraikuntza materialak, etab. barne);

d.e) Esku-hartzeari lotutako lurraldeei eta higiezin eraikuntzari lepora dakiekeen gastuetan, jabetza araubidea eta titularitatea zehaztu beharko da, hura egiaztatzen duen dokumentazio nahikoa entregatuz;

d.f) Ekipoak, materialak eta hornikuntzak. Diruz lagunduriko jardueraren lurraldeak eta eraikinak ez bezalako hibilgetu elementuak erostea ekipamendutzat hartuko da: makinak, altzariak, ekipo informatikoak, garraio elementuak eta beste ekipamendua. Kontzeptu horretan ekipoak bidaltzetik eratorritako gastuak barne hartu ahal izango dira;

d.g) Langileak. Arau horren ondorioetarako honakoa hartuko da kontuan:

- Atzerrian dauden langileak: eskaria egiten duen erakundeko langileak dira eta diruz lagundutako esku-hartzea egiten den herrialdean ematen dute zerbitzua. Langile horien funtzioak eta zereginak zuzenean daude lotuta haiekin, Kooperantei buruzko Estatutua eratzen duen apirilaren 28ko 519/2006 Errege Dekretuarekin (maiatzaren 13ko BOE) bat etorrira.
- Bertako langileak: erakunde eskatzailearen edo bertako bere bazkideen langileak, talde onuradunaren beste erakunde batenak. Langile horiek guztiak diru-laguntzaren xede den esku-hartzea gauzatzen den herriko lan legeen menpe izango dira eta aipatutako zerbitzuak adierazitako herrian garatuko ditu. Euren betekizunek eta betebeharrek esku-hartzearekin zuzeneko lotura izango dute.
- Egoitzako langileak: Bilboko egoitzan zerbitzuak eskaintzen dituen Estatutako legeen menpeko erakunde eskatzailearen langileak, garatzen dituzten zerbitzuak direla eta, noizean behin edo maiz egikaritze herrialdeetara joan behar izatea alde batera utzita. Horien betekizunak eta betebeharrak egikartzeari eta diru-laguntzaren xedeko esku-hartzearen jarraipenari egozten zaizkie.

Nolanahi ere, erabat edo partzialki egotziko da, betekizunaren arabera diruz lagunduriko esku-hartzeari egiaztatzearen arabera.

Diruz lagundu daitezkeen langileen gastuek barne hartu ahal izango dituzte indarrean dauden legeetan derrigorrezkoak direnak.

Atzerrian dauden langileei eta egoitzan daudenei, gehienez ere, proiektuaren aurrekontuaren % 20 inputatuko zaie.

d.h) Gaikuntzak, mintegiak, diagnostikoak, txostenak, argitarapenak, gestio kontrola edo esku-hartzearen formulazioan adierazitako bestelako premiak asetzeko eskatutako zerbitzu teknikoak eta profesionalak;

d.i) Kreditu osagai bat duten esku-hartzeak egonez gero, funts birakariak ezingo ditu gainditu deialdian ezarritako mugak, edo finantzatutako gastu zuzenen %30. Funts birakaria gestionatzen duen erakundeak kanpo finantza- kontabilitate auditoretza aurkeztu beharko du 30.000 eurotik gorako fondoetarako, edo kopuru baxuagorako ere bai, emakidan hala zehazten bada.

d.j) Esparruko mantentzea (elektrizitatea, ura, komunikabideak, mantentzea, segurtasuna, ...).

d.k) Bidaiak, ostatua eta dietak. Esku-hartzea egikaritzeko atzerriratutako langileen mugikortasunerako eta lokalerako gastuak eta esku-hartzea gauzatzeko proiektuaren jasotzaile diren pertsonen beharrezko gastuak sartzen dira. Ez da onartuko egoitzako langileen bidaiako, ostatuko gasturik eta dietarik, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik.

d.l) Esku-hartzea egikaritzeko beharrezko diren finantza-gastuak, lege edo finantza aholkularitzakoak, notariokoak eta erregistrokoak. Kontzeptu honetan sartzen dira egikaritze herrialdeetako fondoetako banku transferentzietatik eratorritako gastuak.

d.m) Proiektuaren formulazioan aurreikusitako gastuak, esku-hartzearekin lotutakoak eta Bilbon garapenerako heziketa ekimenekin eta gizarte sentsibilizazioerakoekin lotutakoak.

d.n) Ez da inolako baloraziorik onartuko. Eskaria egin duen erakundeak ekarpen balorizatuak jasota utzi nahi baditu horri buruzko informazioa erantsi dezake, baina ez dira agertuko proiektuaren aurrekontuan.

6.3 Diruz laguntzako moduko kontzeptu baten zenbatekoa Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017ko Legean dauden kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa bada (horniketa eta zerbitzu-kontratuetan 15.000€ eta BEZa eta obra-kontratuetan 40.000€ eta BEZa), erakunde onuradunak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu behar ditu, gutxienez, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik edota xede-herrialdeko ezaugarriengatik, hori betetzeko aukera ematen ez duenean salbu. Inguruabar hauetan, beharrezkoa izango da dagokion Lankidetzarako Bulego Teknikoak edo xede-herrialdeko espainiar enbaxadak igorritako txosten bat aurkeztea, salbuespen hori egiaztatzeko. Hala ezingo balitz, Europar Batasuneko edozein herrialdeetako enbaxadakoa onartuko litzateke.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan edo, egoki bada, diru-laguntzaren eskarian, aurkeztu beharko dira eta horien artean bat aukeratzeko eraginkortasuna eta ekonomiako irizpideak hartuko dira kontuan. Ez bada eskaintzarik merkeena aukeratzen, memoria batean justifikatu beharko da beren beregi.

Esku-hartzea gauzatzen deneko herrialde edo lur-eremuri lotutako arrazoiak direla medio, Administrazioak salbuespenak egin ahala izango ditu atal honetan ezarritako betekizunei dagokienean.

6.4 Diru laguntzei buruzko Legen Orokorraren 31.4 artikuluan agindutakoari jarraituz, Bilboko Udalak emandako diru laguntzekin, salbuespenez, eraikitzen diren higiezinak nahiz erosten diren ibilgailu edo bestelako ekipoak burututako jarduketaren helburuetara lotuta geratuko dira formalki, eta, behin helburu horiek erdietsitakoan, edo esku-hartzea gauzatzeko ezintasuna sortzen denean, eskualdatu egingo dira, eta GGKE espainiarrak, ez bertoko laguntzaileek, ez dituzte libreki erabiliko. Esku-aldatzea esku-hartzearen xede deneko herrialdeko tokiko erakundeei egingo zaie nagusiki eta egitate horren dokumentuzko isla egin beharko da. Dena delakogatik ere erakunde publikoak ezingo balute erantzukizun hau bere egin, erakunde eskatzaileak ziotutako proposamen alternatibo bat aurkeztu beharko du, eta hau Bilboko Udalak onetsi egin beharko du.

6.5. Balorazio-batzordeak aurkeztutako proiektuan jarduera edo gastu batzuk aldatzeko eska dezake; hori, helburuak betetzeko beharrezko iritzita. Aldaketak aurrekontuan aldaketarik balekar, entitate eskatzaileari eskabidea berriro egiteko eska dakioke.

6.6. Inola ere ezingo dute diru-laguntzarik jaso:

- a) Banku kontuen interes zordunak.
- b) Administrazio eta zigor interesak, errekarquak eta zehapenak.
- c) Auzi prozedurengatik gastuak.
- d) Egoitzan dauden langileen gastuak inagurazioetako ekitaldiak, dohaintzak, titulartasunaren transferentziak edo antzekoak direnean.

6.7. Orokorrean, zergak diru-laguntza jaso dezaketen gastua dira, erakunde onuradunak diruz ordaintzen baditu.

7. artikulua. Eskabideak

7.1. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2020ko otsailaren 17an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen bitartez.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

7.4. Erakundearen legezko ordezkari edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanaz adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5. Diru-laguntza eskariak ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

7.6. Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

7.7. Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkieke erakunde eskatzaileei.

7.8. Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

7.9. Erakunde eskari-egile bakoitzak Garapenerako Lankidetzaren eta Giza Eskubideen esparruko 1, 2, 3 eta 4 lerro guztietarako programa bakarra aurkeztu ahal izango du.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2020. urtea)" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan** aurkeztu bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2020. urtea)" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).
- Erabiltzen diren siglak edota laburdurak azaltzeko aurkibide-orria ere aurkeztu behar da.

8.3. Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4. Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.5. Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak zuzendu ezean eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

9.1. Proiektuaren identifikazio, kalitate teknikoa eta koherentzia (58 puntu):

- a) Aurrekariari eta proiektuaren burutuko den testuinguruari buruzko informazioa, bereziki garrantzia emanez genero-berdintasunari eta giza eskubideak betetzeari. (gehienez 7 puntu). Baloratuko dira, besteak beste, proiektuari buruz egingo den informazioaren zehaztasuna eta haren kokapen orokorra, testuinguru geografikoa, juridikoa, soziala eta ekonomikoa kontuan harturik. Positibotzat joko dira ekintza zehatzak eta beren eragin praktikoa eta zuzena Oinarrizko Behar Sozial Nagusietan.
- b) Agertutako helburuen, proposatutako jardueren, lortu nahi diren emaitzen eta proiektuaren abiatzeko baliabideen azalpena eta euren arteko koherentzia. (gehienez 5 puntu).
- c) Emaitzak neurtuko dituzten adierazleen erabilpena eta haiek egiaztatzeko sistemena. (gehienez 2 puntu). Prozesuaren edo emaitzen adierazleen azalpena baloratuko da, baita beren argitasuna eta egiaztatze-sistemen zehaztasuna ere.

- d) Proiektuan erabiliko den zerbitzu eta baliabideetan emakume eta gizonezkoen benetako partaidetzari buruzko jarraipen eta ebaluazio datuak jasotzeko genero-adierazleak erabiltzea. (gehienez 1 puntu)
- e) Bideragarritasun teknikoa eta finantzazkoa, eta aurrekontua deialdirako egokitzea. (gehienez 6 puntu). Baloratuko dira, besteak beste, aurrekontua aurkezteko deialdiaren formatua erabiltzea, aurrekontuaren logika egingo diren jardueretik, egoitzan eta atzerrian dauden langileen gastuen ehunekoa, proformako fakturak aurkeztea, zeharkako gastuen ehunekoa eta aurrekontua aplikatzeko zuzentasuna.
- f) Zuzenean edo zeharka onuradun izango diren biztanleei buruzko informazio zehatza, sexuka eta biztanleria hori aukeratzeko irizpideen arabera bananduta. (gehienez 2 puntu). Informazio zehatza baloratuko da, baita proiektuaren onuradun izango den lagun kopurua, lan egiten den sektorearen arabera.
- g) Proiektuak ekintzen bidez, batez ere prestakuntza arlokoen bidez, gizartean aldaketak eragiteko duen gaitasuna. (gehienez 3 puntu). Formakuntza jarduerak baloratuko dira eta zein neurritan eragiten duten eraldaketa sozialean ere bai. Proiektuaren alde hezitzailea ere kontuan hartuko da.
- h) Teknologia berriak proiektuan erabiltzea. (gehienez puntu 2). Proiektuan teknologia berriak erabiltzea eta proiektua edota bere eranskinak aurkezteko modua baloratuko dira.
- i) Emakumeek proiektuaren ziklo osoan parte hartzeko dituzten zailtasunak (ordutegia, lekua, informazioa...) gainditzeko neurriak hartzea. (gehienez puntu 2). Neurrien deskribzioa, zehaztasuna eta aurreikusitako eragina baloratuko dira.
- j) Bilboko elkarte eta erakundeen eta txirotutako herrialdeko komunitate edo erakundeen edo arteko harremana sustatzea. Lehentasuna emango zaie elkarte feministei edota emakumeen taldeei eta giza eskubideen defentsan eta sustapenean beren beregi lan egiten dutenei. (gehienez 1 puntu). Esperientziak trukatzeko gauzatuko diren neurrien deskribzioa, beren irismena, eta elkarlanean arituko diren entitateen ezaugarriak baloratuko dira.
- k) Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuaren sustapenerako estrategiak indartzeko osagarri produktiboak sartzea (gehienez puntu 2). Baloratuko da proiektua arlo hau lantzen duen eta bere eragina, proiektuaren beharren arabera gaiaren azterketa egiten den eta sektorerako lan-estrategiak zehazten diren.
- l) Material grafikoa eta kokapen-mapak eranstea. (gehienez 2 puntu). Material grafikoaren eta mapen zehaztasuna eta argitasuna baloratuko dira.
- m) Jarraipenerako egingo diren jardueren deskribzioa egitea, alde batetik erakunde eskatzaileak eta, bestetik, helburu den tokiko alderdiak edo kontraparteak, bai proiektuak dirauen bitartean, bai amaitutakoan. (gehienez 2 puntu). Jarraipen-jardueren zehaztasuna eta argitasuna baloratuko dira.
- n) Proiektua eskatzailearen erakundearen, tokiko alderdiaren edo kontrapartearen edota tokiko administrazioen ekintza-estrategia batean sartuta egotea; estrategia hori biztanleen eskubideak betetzera orientatuta egonda. (gehienez 2 puntu). Estrategien deskribzioaren zehaztasuna baloratuko da.
- o) Proiektua Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialekin bat etortzea (gehienez 9 puntu). Proiektua III. Plan

Zuzentzailean azaltzen diren lehentasunekin bat osoki edo partzialki datorren baloratuko da.

- p) Generoaren araberako inpaktuaren ebaluazioa (gehienez 3 puntu). Hori baloratzeko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan:
- Analisisian, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan erabilitako metodologia, fase guztietan genero ikuspegia txertatu dela kontuan hartuta.
 - Jarraipen eta ebaluaziorako adierazle zehatzak eta egiaztagarriak, bai prozesuarenak, bai eta emaitza eta helburuenak ere. Zenbatekotasunaren eta nolakotasunaren adierazleak txertatzen ahalegindu beharko da.
 - Proiektuaren estrategia orokorrarekiko koherentzia.
 - Emaitza eta helburuen bideragarritasuna eta jasangarritasuna, ikuspegi tekniko, ekonomiko eta instituzionaletik begiratuta.
- q) Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen ordenarako printzipioak eta zehar lerroen balorazioa (gehienez 5 puntu). Proiektuan zeharkako lerroak sartzearen deskripzio zehatza baloratuko da.
- r) Agiri guztiak behar bezala aurkeztea eskaria egiteko unean (2 puntu).

9.2. Eskaria egiten duten erakundeari dagokionez (14 puntu):

- a) Erakunde eskatzailearen esperientzia eta kudeaketa gaitasuna, Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialetan batez ere. (gehienez 3 puntu). Esperientzia honen iraupena, jarraipena eta intentsitatea baloratuko dira.
- b) Erakundearen partzuergo batek aurkeztea proiektua. (gehienez 0,5 puntu)
- c) Bilboko Udalak lehenago finantzaturako proiektuetan erakunde eskatzaileak izandako emaitza positiboak. (gehienez puntu 1). Bilboko Udalarekin izandako harremanak baloratuko dira (urte kopurua, proiektu kopurua, kudeatutako udal aurrekontua...)
- d) Bulegoak edota Bilboko delegazioak proiektuaren idazketan parte hartzea. (gehienez puntu 1)
- e) Proposatutako aldean eta sektorean proiektuak egin izanaren aurrekariak. (gehienez puntu 1). Proposatutako aldean eta sektorean egindako lanaren iraupena, jarraipena eta intentsitatea baloratuko dira.
- f) Euskal erakundeak, elkarteak eta erakunde pribatuak proiektuan sarrarazteko ahalmena, batez ere, horiek berdinketa politiken sustapenean eta emakumeen eskubideen defentsan lan egiten badute. (gehienez 0,5 puntu)
- g) Jarraipena Bilboko Udalak finantzaturako ekintzetan (gehienez 3 puntu). Harreman hauen iraupena, jarraipena eta intentsitatea baloratuko dira, baita emaitzak eta kudeaketa ere.
- h) Emakume eta gizonen presentzia orekatua (sexu bakoitzeko ordezkariak, % 40) Gobernu Batzordean edota erakundearen zuzendaritzaren baliokide den beste organoren batean. (gehienez puntu 1)

- i) Egiaztatutako prestakuntza genero gaietan, proiektuaren arduradun den gutxienez taldekide baten aldetik. (gehienez puntu 1). Genero-gaietan formakuntza egotea baloratuko da, ikastaroen, gaikuntzen edo unibertsitate-ikasketen bidez.
 - j) Erakunde eskatzailearen finantza eta teknikako gaitasuna genero ikuspegitik lan egiteko (Genero Politika/Dokumentua, genero gaietan esperientzia, genero ikuspegiak proiektuan duen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa, plangintzarako tresnak, genero sareen edo emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko mugimenduetako partaide izatea...). (gehienez puntu 1)
- k) Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kidea izatea. (puntu 1)

9.3. Inguru geografikoari dagokionez (7 puntu):

- a) Indarrean dagoen Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzailearen lehenetsitako herrialde bateko jardueraren helburua (7 puntu).
- b) Indarrean dagoen Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzentzailearen lehentasunezko definizioa dauka herrialde bateko jardueraren helburua (4 puntu).

9.4. Tokiko alderdiari edo kontraparteari dagokionez (10 puntu):

- a) Tokiko alderdiaren edo kontrapartearen esperientzia eta kudeaketa gaitasuna, Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialetan batez ere. (gehienez 2 puntu). Proiektuen kudeaketan modu jarraian izandako esperientzia egiaztatua eta inguruan egindako lana baloratuko dira.
- b) Elkarteak izaera feminista edo emakumeena izatea edota emakumeen politiketan, sustapenean eta giza eskubideen defentsan lan egiten duten erakunde eta elkarteak proiektuan inplikatzeko gaitasuna. (gehienez 2 puntu)
- c) Eskaria egin duen erakundearen eta tokiko alderdiaren edo kontrapartearen arteko lehendiko harremanak. (gehienez puntu 1). Harreman hauen iraupena, jarraipena eta intentsitatea baloratuko dira.
- d) Bilboko Udalak finantzaturako proiektuetan lehendik izandako lankidetzaharremanak. (gehienez 2 puntu). Harreman hauen iraupena, jarraipena eta intentsitatea baloratuko dira, baita emaitzak eta kudeaketa ere.
- e) Erakunde lokalen eta zuzeneko onuradunen arteko harremanak. (gehienez 2 puntu). Tokiko alderdian edo kontrapartean herritar onuradunik dagoen eta hauekin duen harreman iraunkorra baloratuko da.
- f) Egiaztatutako prestakuntza genero gaietan, proiektuaren arduradun den gutxienez taldekide baten aldetik. (gehienez puntu 1). Genero-gaietan formakuntza egotea baloratuko da, ikastaroen, gaikuntzen edo unibertsitate-ikasketen bidez.

9.5 Erakunde lokal publikoek xede-lekuan duten partaidetzari dagokionean (6 puntu):

- a) Tokiko politika publikoetan proiektua integratzeari edota koordinatzeari buruzko informazioa. (gehienez 2 puntu). Gai hauel buruzko informazioaren zehaztasuna eta tokiko erakunde publikoen intentsitatea baloratuko dira.

- b) Eskumena duten erakunde lokal demokratikoek edo erakunde publikoek beren beregi parte hartzea edo horiek laguntzea proiektuak aurrera eramateko. (gehienez 2 puntu). Proiektuari laguntzeko parte-hartze aktiboa eta eskabideari zuzenki lotutako dokumentazio ofiziala baloratuko dira.
- c) Eskumena duten erakunde publikoek beren beregi laguntza ematea behin proiektua amaitutakoan. (gehienez 2 puntu). Proiektuari eta bere iraupenari laguntzeko, parte-hartze aktiboa eta eskabideari zuzenki lotutako dokumentazio ofiziala baloratuko dira.

9.6 Proiektuaren helburu diren biztanleei dagokienez (5 puntu):

- a) Bereziki kalteberak diren biztanleriaren sektoreen eskubideak bermatzeko edo babesteko proiektua, batez ere, indigenen, nekazaritzako inguru apaleko biztanleen, hiri-inguruetakoko biztanleen, baztertutako emakumeen, baztertutako umeen, gizakien salerosketak eragindako pertsonen, errefuxiatu, erbesteratu edo itzulitakoen, minusbaliotasun funtzionala daukatenen eta abarren eskubideak. (gehienez 2 puntu)
- b) Proiektuaren helburu diren prestonek proiektuaren fase desberdinetan parte hartzea, emakume eta gizonezkoen partaidetza orekatua kontuan hartuta (gehienez 2 puntu). Parte-hartze maila eta oreka baloratuko dira.
- c) Emakumeen elkarteak indartzea (emakume liderren prestakuntza, emakumeen autonomiari laguntzea, emakumeen hautagai-zerrendak prestatzeko laguntza, etab.) (gehienez puntu 1).

9.7 Programak baloratzeko, dirulaguntza eskatzeko inprimakian eta erakunde eskatzaileak bere borondatez sartu ahal izango dituen ondorengo eranskinetan jasotako informazioa bakarrik hartuko da kontuan:

- d) -Aurrekontu banakatua.
- e) -2.500 eurotik gorako gastuen proformako fakturak, unitateko kostuan
- f) -Erakunde publiko eskudunen abalak
- g) -Karpeta teknikoak
- h) -Material grafikoa eta kokapen-mapak
- i) -Tokiko administrazioaren, tokiko gizarte-administrazioaren eta erakunde eskatzailearen estrategiaren dokumentua (9.1.n puntua)
- j) -Prestakuntzari eta genero-ikuspegiari buruzko dokumentua (9.2.i, 9.2.j eta 9.4.f puntuak)
- k) Ez da kontuan hartuko 9.7 puntu honetan adierazitakoez bestelako informazio-iturri posiblerik.

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1. Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Saileko Lankidetza, Inmigrazio eta Giza Eskubideen Sekzioari atxikitako langileek izango dute.

10.2. Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidentea: Berdintasun, Lankidetzaz, Bizikidetzaz eta Jailetako Saileko zinegotzi-ordezkaria

Idazkaria: Berdintasun, Lankidetzaz, Bizikidetzaz eta Jailetako Saileko Zuzendaria

Kideak: Sekzioko burua

Lankidetzako teknikaria

Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluko Batzorde Betearazlea

Garapenerako Lankidetzako Batzorde Berezia

10.3. Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

10.4. Balorazio Batzordearen txostenaren berri emango zaie Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluko Batzorde Betearazleari eta Garapenerako Lankidetzako Batzorde Berezi Mistoari, behin betiko ebazpen-proposamena egin aurretik.

10.5. Instrukzio-organismoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berriz antolatzea

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua. Ebazpena

12.1. Prozedura ebaztea Gobernu Batzordeari dagokio.

12.2. Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzaren berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Bilboko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1. Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantzazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3. Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantzazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzte kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzordeak dagokion saileko ordezkari zari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoak aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.
- Tokiko bazkidea edo atzerriko alderdia aldatzea.
- Proiektuaren biztanle protagonista aldatzea.
- Proiektuaren kokagunea aldatzea.
- Jatorrizko kronograma oinarri hartuta, jardueren betearazpenean sei hilabetetik gorako eragina daukaten aldaketak.
- Hiru hilabetetik gorako luzapenak.

Jarduerak egiteko epeak gehienez ere hiru hilabete luzatu ahal izango dira alde aurretik baimenik izan barik. Hala ere, luzapen hori Bilboko Udalari jakinarazi beharko zaio justifikaziorako hasierako epea bukatu baino lehen. Jakinarazpen horrekin, epea modu automatikoan luzatu dela ulertuko da.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntzak egokituta, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaiokete Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantzazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Erakunde onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote proiektu bererako beste diru-laguntza edo laguntza finantzario batzuk jaso dituztela, beste administrazio publiko batzuek emanda, udal ebazpenaren ondoren. Horretarako, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epea izango da, gehienez.

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1. Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3. Justifikatzeko sistema

19.3.1. Norgehiagokan, diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin. Hori guztiori eskaria egitean aurkeztutako programarekin bat etorrita. Proiektuaren memoria teknikoan zehaztu egingo dira egindako ekintzak, lortutako emaitzak, lortutako helburuak eta aurkitutako arazoak, genero-ikuspegitik. Beharrezkoa bada, proiektuaren eragina aipatuko da (alderdi teknikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak, ekologikoak eta emakumeen eta gizonen arteko botere-erlazioari dagozkionak).

Txosten teknikoan Power Point bat sartu ahal izango da (gehienez 20 diapositibakoa) egindako proiektuaren laburpen moduan, honakoak jasota besteak beste: lorpenak, ahuleziak, alde sendoak, jasangarritasuna, burututako ekintzak etab. Proiektua egin

den leku geografikoaren maoak eta argazkiak sartuko dira nahitaez. Power Point hori Bilboko Udalaren web orrian sartu ahal izango da, urteko memorietan.

- b) Justifikazio-kontuaren barne izango dira, dokumentazio originalarekin batera, egindako gastuen zerrenda zenbatua erantsiko da ordena korrelatiboan, onartutako aurrekontuan agertzen den moduan. Zerrenda ondorengo eredian bezala osatuko da: faktura edo dokumentu zenbakia, ordainketa egiten duen entitatea (erakunde eskatzailea izan daitekeelarik edo tokiko alderdia, Elkarte Fitxak ezartzen duenaren arabera), data, egiaztagiria, kontzeptua, entitate hornitzailea, zenbatekoa bertako txanponean (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren diru laguntzen kasuan), zenbatekoa eurotan. Zerrenda horretan, agiri hauek erantsiko dira, proiektuaren zenbatekoa osatu arte: nominak, egiaztagiriak eta faktura originalak edo notarioak konpultsatutako kopiak edo subentzionaturiko zenbatekoaren azkeneko erabilera egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein agiri (Nazioarteko Agentzien kasuan ezaugarri bereziekin). Diru-laguntza edo laguntza horiek justifikatzeko jatorrizko agiriak zigitatuta egongo dira eta gutxienez finantziazioaren jatorria ziurtatuko dute.

Ez dira sartuko kontratuak, kotizazioak, proformako fakturak, erreferentzia-terminoak eta abar, Bilboko Udalak espresuki eskatzen ez baditu.

Proiektuak beste herri-administrazio batzuen diru-laguntza jaso badu, ekainaren 16ko 784/2010 Errege Dekretuaren 33. artikuluan agindutakoa aplikatuko da, herri-administrazio horiek emandako diru-kopuruari dagokionez.

Kutxako ordainagiriak erabiltzeko baimena ematen da, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 40.3 artikuluan jasotako moduan.

- c) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:

- Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagirik, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaportea).

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagiririk aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako

kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzaten den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 7 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

- d) Justifikazioa egiteko konturen modalitatea erabil daiteke, auditorearen txostena erantsita, baldin eta maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduan ezarritako baldintzak betetzen badira. Txosten hau 19.3.c puntuan eskatutako agiriak aurkeztearen ordezturaz daitezke. 60.000 euroko edo hortik gorako diru-laguntzak izanez gero, modalitate hau erabiltzea gomendatzen da. Txosten hauen kostuari aurre egiteko diru-laguntza bat eman daiteke, 6.2.d.b. puntuan azaldutako baldintzak betez gero.
- e) Bilboko Udalak diruz lagundutako beste edozein programa edo proiekturen finantzazioa erabat justifikatu barik badauka eskaria egin duen erakundeak, kontzeptua edozein dela ere, ez da finantza-laguntzetarako libramendurik egingo.
- f) 25.4. Ohiz kanpoko egoeretan, behar bezala egiaztatzen direnean, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 39. artikularekin bat etorrira.

19.4. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14.artikuluari aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.